

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2013ko abenduaren 15a - 2014ko abenduaren 14a

Itziar Etxebarria Bilbao

aldezleā

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1.- 2014an landutako aztergaiak	3
Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua	3
Bulegora joan diren pertsonen generoa	4
Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza	5
Aztergaiak kolektiboen arabera: Ikasleak, II, AZPko langileak eta “Beste batzuk”	5
Aztergaiak campusen arabera	7
Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera	8
Aztergaien sailkapena	10
Aztertutako gaiak	12
Bulegoaren esku-hartzea	16
Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak	19
Jaso dugun erantzuna	19
Ondorioak	20
2.- Beste eginkizun batzuk	20
G9ko Defendatzaileen X. Topaketa antolatzea	20
Espainiako beste unibertsitate defendatzaile batzuek antolatutako topaketetan parte hartzea	21
Administrazioaren aurrean eskubideak defendatzeko beste organo batzuen topaketetan parte hartzea	21
3.- Txosten ekonomikoa	21
4.- Gogoetak, hiru urteren buruan	22
ERANSKINA: Bideratutako eskariak	25

Sarrera

Hiru urte baino gehiago igaro dira 2011ko abenduaren 15ean Klaustroak Aldezle izateko hautatu ninduenetik. Unibertsitateko defendatzailetzaren buruan igarotako urte hauetan, gure unibertsitateko funtzionamendua barru-barrutik ezagutzeko aukera izan dut. Txosten honetan, Aldezlearen urteko jardueraren berri emateaz gainera, denbora honetan izandako esperientzian oinarritutako hainbat gogoeta helarazi nahi nizkioke Klaustroari.


Hasteko, 2014. urtean, bulegotik artatu diren kasuak deskribatuko ditut, aurreko urteetakoekin erlazioan jarrita. Gero, bulego honek 2014an egindako beste jarduera batzuk deskribatu, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko dut. Amaitzeko, gure unibertsitatearen funtzionamenduaren hainbat alderdiren gaineko gogoetak egingo ditut, arreta eskaini behar diegula uste baitut.

1.- 2014an landutako aztergaiak

Atal honetan, 2014. urtean, bulegoan landu diren aztergaiak deskribatzen ditugu, eta haien oinarritzko ezaugarriei buruzko iruzkinak egiten ditugu. Testuaren amaierako **ERANSKINEAN**, urte osoan landutako gaien zerrenda ageri da.

Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2014an, 153 pertsonak jo zuten Aldezlearengana. Lehenengo grafikoan ikus daitekeenez, bulegora etorritako pertsona kopuruak igotzeko joerari eutsi zion, igoera apalagoa izan zen arren (aurtengo igoera % 6,3koa izan da, 2013. urtearekiko; urte hartan, ordea, % 67,4ko igoera izan zen, 2012. urtearekiko).



Aurreko urteetan bezala, pertsona batzuek kasu bat baino gehiago planteatu dizkigute, eta kasu jakin batzuk taldean planteatu dira. Hala, aurten, 164 kasu artatu dira, guztira. Horrek esan nahi du % 19,7 igo dela 2013. urtearekin alderatuta; igoera nabarmena, urte hartan 2012. urtearekiko izandako igoera (% 41,2) baino apalagoa bada ere.


Azken batean, igoerari eutsi zaio bai bulegora etortzen diren pertsona kopuruan bai, horren ondorioz, bulegoan artatzen diren gai kopuruan. Nolanahi ere, igoera hori apalagoa izan da, 2013ren eta erakundea martxan jarri zeneko 2012ren artean izandako igoerarekin alderatuz gero.

Gure susmoa da igoera hori gertatu dela erakunde honek emandako zerbitzua hobeto ezagutzen delako eta ez hainbeste urte honetan gatazkak eta arazoak areagotu direlako. Aurrerago ikusiko den moduan, gehienbat, kontsultak igo dira; kexak, gutxiago.

Hurrengo ataletan, oinarrizko erreferentzia gisa, aipatutako 164 kasu horiek hartuko ditugu. Nolanahi ere, merezi du aipatzea, horiez gainera, 12 pertsonak 12 gai gehiago aurkeztu zituztela bulegoan. Pertsona horiek ez dute kontsultarik, kexarik edo bitartekaritza eskaerarik egin; haatik, arrazoi pertsonalengatik edo unibertsitaterako garrantzitsuak izategatik, Aldezleari ezagutzera eman beharreko gertaera batzuk kontaktu dituzte.

Bulegora joan diren pertsonen generoa


Aldezlera etorritako 153 pertsonen artetik, 82 emakumeak ziren, eta 71, gizonak. Bigarren grafikoan, datu horiek ehunekoetan ematen dira, 2012 eta 2013koekin batera, alderaketa egin ahal izateko.



Grafikoetan ikus daitekeenez, lehenengo urtean, Aldezlearengana jo zutenen artean gizonezkoak izan ziren nagusi, argi eta garbi. Azken bi urteotan, ostera, nabarmenki igo da emakumeen ehunekoa; hartara, gaur egun, sexuen arteko proportzioa errealitatean ematen denaren parekoa da (gure unibertsitateko gizonen eta emakumeen proportzioa gaur egun % 48,1 eta % 51,9 da, hurrenez hurren).

Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza

Aipatutako 164 kasuetatik, 35 euskaraz planteatu ziren, eta 129, gaztelaniaz. Hirugarren grafikoan ikus daitekeenez, 2014an nabarmen igo da euskararen erabilera; izan ere, aurreko bi urteetako batez bestekoa % 15 izan zen, eta azkeneko urtean, berriz, % 21,3 izatera iritsi da.




Igoera hori, neurri batean, lotuta egon daiteke kontsulten kopuruak kexen kopuruarekiko izandako igoerarekin. Gaztelania maizago erabiltzen da kexetan kontsultetan baino; izan ere, kexak idatziz eta aurretik hainbat organotan eginiko jardueren dokumentazioarekin batera aurkeztu ohi dira, eta kontsultak, ordea, telefonoz edo zuzeneko elkarrizketen bidez egiten dira askotan.


Aztergaiak kolektiboan arabera: Ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak eta “Beste batzuk”

Kolektiboka, 2014an, 68 kasu ikasleak planteatu zituzten; 56, irakasleak eta ikertzaileak, eta 14, AZPko langileak (ikus 4. grafikoa).

Beste 26 kasu gehiago jaso ziren, “Beste batzuk” bezala sailkatu ditugunak, eta aparteko grafiko batean agertzen dira (5. grafikoa); izan ere, unibertsitateko arazoei (sarbideak, plazak...) buruzkoak baziren ere, kanpoko pertsonen planteatu zituzten.




Laugarren grafikoan ikus daitekeenez, 2012an, AZPko langileek eta irakasle-ikertzaileek planteatutako gaiak % 13,1 eta % 47,6 izan ziren, hurrenez hurren; hala ere, UPV/EHU osoa kontuan hartuta, kolektibo horiek % 3,6 eta % 10,5 baino ez ziren, hurrenez hurren (% 85,9ko ikasleen aurrean). 2013an, AZPko langileek eta irakasle-ikertzaileek planteatutako kasuen ehunekoa altuagoa izan zen oraindik bi kolektibo horiei zentzuz zegokiena baino; ikasleen kasuak, ordea, nabarmen igo ziren. Horrela, bulegora joandako pertsonen profila normalizatzen hasi zen, eta inguruko unibertsitateetako defendatzailetza gehienek profilarik hasi zitzaion hurbiltzen. Eta 2014an AZPko langileek planteatutako kasuak gora egin zuten arren, 2014an eta 2013an nahiko antzekoak izan ziren hiru kolektiboen proportzioak.



"Beste batzuk" kategorian aurkeztutako kasuei dagokienez, 5. grafikoan ikus daitekeenez, Adezlearengana joandako kanpoko pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora. Badirudi, beraz, erakunde honek emandako zerbitzua gero eta ezagunagoa dela unibertsitateetik kanpo.

Puntu honetan, merezi du aipatzea, hiru urte hauetan, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen planteatutako kasuak bulegoan urte osoan artatutako kasu guztien % 11ren eta % 15,9ren artean egon direla; kontuan hartu beharreko proportzioa, inondik ere.


Ikasleen 68 kasuetatik, 62 graduoko ikasleenak izan ziren, 5, graduondoko ikasleenak, eta 1, Esperientzia Geletako ikasleena (6. grafikoa).



Ikus daitekeenez, 2013an bulegora etorritako graduondoko ikasleen ehunekoak nabarmen jaitsi zen, 2012. urtearekin alderatuta. 2014an, ehuneko horrek behera egin du berriro, baina gutxiago. Urte hauetan graduondoko ikasleen proportzioa jaitsi ez denez, datu horiek adieraziko lukete maila horretako ikasleei emandako zerbitzuak hobera egin duela.

Aztergaiak campusen arabera

Artatu ziren 164 kasuen artetik, 73 Bizkaiko Campusetik iritsi ziren; 34, Gipuzkoako Campusetik; eta 31, Arabako Campusetik (esan bezala, 26 kasu UPV/EHUtik kanpoko pertsonen planteatu zituzten). Ikusi 7. grafikoa.



Zazpigarren grafikoan ikusten denez, 2012an eskaeren % 65,5 Bizkaiko Campusetik egin ziren; alabaina, handiena izan arren, campus hori UPV/EHUren % 56,1 baino ez zen. Ondoren, 2013. urtean, campusen arteko proportzioa ia bat zetorren proportzio errealarekin. Eta 2014an ere nahiko orekatua izan da campusen arteko proportzioa, nahiz eta Arabako Campusaren presentzia handiagoa izan den, hasiera batean espero zitekeena baino (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako campusen arteko proportzioa gaur egun honako hau da: % 56,2, % 26,1 eta % 17,8, hurrenez hurren).

Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

Lehen taulan, Aldezlearen bulegora laguntza eske joan diren pertsonen ikastegi eta zerbitzuen zerrenda jaso dugu.

Datu hauetatik ondorioak ateratzeko unean, zuhurtasunez jokatzea komeni da. Zerrendako ikastegiak eta zerbitzuak hainbat alderdi garrantzitsutan (ez soilik tamainan) desberdinak izateaz gainera, ikastegi edo zerbitzu beraren datuak asko alda daitezke urte batetik bestera, askotariko faktoreak tartean direlarik, horietako batzuk zorizkoak erabat.

1. taula. 2012an, 2013an eta 2014an Aldezlearengana joan diren pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak

Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014
Arkitekturarako GET	4	6	4
Arte Ederren F.	1	5	1
Bilboko Enpresa Ikasketen UE	3	3	1
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	3	7	2
Bilboko Ingeniaritza GET	7	4	4
Bilboko Irakasleen UE	5	3	4
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-
Donostiako Enpresa Ikasketen UE	1	1	1
Donostiako Erizaintzako UE	-	-	1
Donostiako Irakasleen UE	1	4	1
Donostiako UE Politeknikoa	1	2	1
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1	2	1
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1	15	3
Errektoregoa	1	-	-
Esperientzia gelak	-	-	1
Farmazia F.	2	4	4
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	-	3	9
Gasteizko Enpresa Ikasketen UE	-	5	-
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1
Gasteizko Gizarte Langintzako UE	-	-	1
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	4	6
Gasteizko Irakasleen UE	-	-	2
Gerentzia	-	-	1
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	-	1	-
Idazkaritza Nagusia	-	1	2
Ikasleen kontseiluak	2	3	1
IKTen Gerenteordetza	3	-	-
Informatika F.	-	2	4
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	3	1	2
Kimika F.	-	-	1
Lan Harremanen UE	1	4	-
Letren F.	2	6	16
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	4	1	1
Medikuntza eta Odontologia F.	13	6	16
Nautika eta Itsasontzi-makineria GET	1	1	6
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1
Psikologia F.	5	4	1
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11
Zuzenbide F.	6	7	9
Beste batzuk	15	15	26
Anonimoa	-	1	-
Guztira	97	140	164

Aztergaien sailkapena

Aurkeztutako aztergaien ezaugarriak kontuan hartuta, honela banatu ditugu: 83 kontsulta, 74 kexa eta 6 bitartekaritza eskaera.


Horiexek dira, hain zuzen, unibertsitate defendatzaileen bulegoetan planteatu ohi diren gai motak, eta Aldezleak landu behar dituenak, 2013ko otsailaren 27ko Klaustroan onartutako erakundearen Arautegiaren arabera. Dena den, *Lan arloko jazarpen salaketak konpontzeari buruzko akordioa* 2014ko abuztuaren 27an EHAA argitaratu arte, aurreko akordioa indarrean zegoenez eta horretan Aldezleari eginkizun garrantzitsua ematen zitzaionez jazarpen kexen trataeran, bada, urteko lehenengo hilabeteetan, Aldezleak azertu behar izan zituen horrelako kexak. Zorionez, hilabete horietan jazarpen salaketa bakarra jaso zen, inolako oinarririk ez zuena.

Datu hauek aurreko urteetakoekin alderatuz gero, honako hau ikus dezakegu:

- kontsultak 13 izan ziren lehenengo urtean, bigarreanean, 66, eta hirugarreanean, 83;
- kexak, 72, lehenengoan, 65, bigarreanean, eta 74 azkenekoan;
- bitartekaritza eskaerak, 5 lehenengo bi urteetan, eta 6, azkenekoan;
- eta jazarpen kexa espezifikoak, 7 lehenengo urtean, eta bakarra, azken bi urteetan.


Hortaz, hiru urte hauetan, nabarmen igo da kontsulten kopurua, eta kexen kopuruak eta bitartekaritza eskaerak, ordea, egonkor mantendu dira, gutxi-asko.

Zortzigarren grafikoan, hiru urteen arteko alderaketa ikus daiteke, ehunekotan.



Zortzigarren grafikoan ikus daitekeenez, 2013an, kontsulten proportzioa nabarmen handitu zen; kexena eta, zehazki, jazarpen kexena, aldiz, nabarmen gutxitu zen. 2014. urtean, modu apalagoan bada ere, kontsulten proportzioak gorako joerari eutsi dio, kexen aurrean.

Bederatzigarren grafikoak aztergai motei buruzko datuak biltzen ditu, kolektiboen arabera.



Ikus daitekeenez, 2013an, kontsulta kopuruaren igoera talde guztietan gertatu zen, AZPko langileen taldean izan ezik. 2014an, igoera hori talde guztietan gertatu da, baina bereziki nabarmena izan da ikasleen taldean, non kexen kopurua baino askoz ere handiagoa den.

Bitartekaritza eskaerei erreparatuz gero, ikus dezakegu ia soilik irakasle-ikertzaileen taldetik egiten direla. Kopuru txikia izan arren, datu horrek erakusten digu erlazio arazo gehiago daudela kolektibo horretan; horrelako arazoak bereziki zailak izaten dira eta, “bitartekaritza” kategorian sailkatu badira ere, gutxitan bideratzen dira benetako bitartekaritza prozesu baten bidez. Esaten ari garenaren harira, hurrengo puntuan ikusiko dugunez, kasuak gai espezifikoen arabera aztertzen ditugunean, egiaztatuko dugu “Gatazka lankideekin” kategorian 13 kasu daudela sartuta (askotxo dira, eta askotarikoak: kexak, kontsultak eta bitartekaritza eskaerak), guztiak irakasle-ikertzaileen taldeak planteatutakoak.

Aztertutako gaiak

Kolektiboek zer arazo mota planteatzen dizkiguten zehatz jakiteko, lau taula (2, 3, 4 eta 5. taulak) aurkeztuko dira jarraian, eta horietako bakoitzean kolektibo bakoitzari dagozkion gaiak bildu ditugu. Beltzez nabarmendu ditugu gehienetan agertzen diren gaiak, eta hondo urdinez, berriz, hala 2013an nola 2014an agertu direnak (2012an gaiak ez ziren sailkatu kategorian hauen arabera).

Taulen edukia aztertzen hasi aurretik, komeni da azalpen bat ematea. Guztietan lerro bat jarri da kopuru osoen azpian, “Erantzunik eza” dioena. Kategorian horretan sartutako kasuetan, gaia edozein dela ere, pertsonak kexu ageri ziren ez zutelako jaso beraiek jarritako idatzi edo errekurso baten erantzuna zehurtiazko epe¹ batean.

Bigarren taulan nabarmen ikusten denez, ikasleen taldean, 2014an, gehien ateratako gaiak hauek izan ziren: “Ikasleen ebaluazioa”, “Irakaskuntzaren kudeaketa”, “Matrikula”, “Irakasleen portaera”, eta “Gradu/Master amaierako lana”. Lehenengo lauak 2013an ere agertu ziren, eta horietako hiru nabarmendu egin dira bi urteetan: “Ikasleen ebaluazioa” nagusiki, baina baita “Matrikula” eta “Irakasleen portaera” ere.

Aurten ez da kasurik izan “Araudia aplikatzeko modua” kategorian, nahiz eta 2013an 6 izan ziren. Asko jaitsi dira, halaber, “Baliozkotzeak eta kredituen onarpena” kategoriako kasuak (2013an 6, eta aurten 1).

¹ 2013an, “Erantzunik eza” beste kategorian bat bezala sartu zen. Haatik, modu horretan, sakoneko arazoei buruzko informazioa galtzen zen. Hemen aurkeztutako tauletan, alderaketa egin ahal izateko, 2013an kategorian horren barruan zeuden 3 gaiak beste kategorian batzuetara eraman dira.

2. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	2013	2014
Araudia aplikatzeko modua	6	-
Araudia ez betetzea	-	1
Arazo pertsonalak	1	-
Atzeritartasuna	1	-
Baliozkotzeak eta kredituen onarpena	6	1
Bekak	3	3
Berdintasun arazoak	-	1
Diziplina arazoak	-	1
Doktorego tesia	-	1
Euskarazko irakaskuntza	-	2
Gatazka agintariekin	-	2
Genero indarkeria	-	1
Gradu/Master amaierako lana	-	4
Gradura egokitzea	2	3
Greba	-	2
Ikasketetarako sarbidea	1	-
Ikaskideen portaera	1	1
Ikasleen ebaluazioa	10	11
Ikasleen ordezkaritza	2	3
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	1
Intimitaterako eskubidea	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	3	10
Irakasleen portaera	4	4
Iraunkortasunari buruzko Arautegia	1	-
Jendearentzako arreta	3	-
Kanpoko praktikak	2	3
Konpentsazio bidezko ebaluazioa	4	3
Matrikula	4	5
Matrikula baliogabetzea	2	-
Mugikortasuna	-	2
Prezio publikoak	2	1
Tituluak eta ziurtagiriak	1	1
Zerbitzuen portaera	2	-
Bestelakoak	-	1
Guztira	62	68
Erantzunik eza	3	1

Irakasleen eta ikertzaileen kasuan (3. taula), 2014an, gehien ateratako gaiak hauek izan ziren: “Gatazka lankideekin”, “Irakaslan-banaketa” eta “Plazak/ordezkapen politzak”; 2013an agertutako gaiak hirurak ere. Horien artetik, “Gatazka lankideekin” kategoria asko nabarmendu da bi urteetan.

Irakasle-ikertzaileen taldean, lankideekin arazoak edukitzea nahiko gauza arrunta da gure inguruko beste unibertsitate batzuetan ere; hain zuzen, arazo hori Espainiako unibertsitate sistemaren egiturazko elementuei lotuta dago, neurri handi batean. Nolanahi ere, kezkatzen gaituen arazoa da, eta arreta berezia eskaini beharko genioke datorren urtean, hura arintzeko neurriak gomendatzeko aukera aztertuz, beste defendatzaile batzuekin batera.

Hirugarren taulan, azpimarratzekoa da, halaber, ikasleen taldean gertatutakoaren harira, 2013an nahiko maiz agertzen zen gai bat –“Araudia aplikatzeko modua”– gutxiago agertu dela 2014an, berriro agertu bada ere. Haatik, “Erantzunik eza” kategorian igoera handia hauteman da.

3. taula. Irakasleen eta ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2013	2014
Aparteko ordainsaria	1	-
Araudia aplikatzeko modua	4	2
Azpiegiturak	1	-
Bateragarritasunak	1	-
Berdintasun arazoak	-	1
Doktorego tesia	-	3
Ebaluazio epaimahaien aukeraketa	-	1
Errektoregoaren portaera	-	1
Etika akademikoa (ikasleak)	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	1
Gatazka agintariekin	-	1
Gatazka lankideekin	17	13
GAURen arazoak	1	-
Ikasleen ebaluazioa	2	2
Ikasleen portaera	3	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	1
Ikerketa-proiektuak	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	2
Irakaslan-banaketa	3	6
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	2
Irakasleen portaera	3	-
JAP	2	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	2	2
Lan baldintzak	-	3
Osagarri gehigarriak	2	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	6	4
Prestakuntzan dagoen ikertzailearen ordainsariak	1	2
Saileko zuzendariaren portaera	-	2
Bestelakoak	-	3
Guztira	50	56
Erantzunik eza	3	6

AZPko langileei dagokienez (4. taula), ez dago urteren batean bereziki nabarmentzen den gairik, eta, horrez gain, gaiak asko aldatzen dira urte batetik bestera. Hala eta guztiz ere, gai bat bada, 2013an eta 2014an agertzen dena eta aurten beste guztien gainetik nabarmendu dena: “Plazak/lekualdatze lehiaketak”.

4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2013	2014
Araudia aplikatzeko modua	-	1
Araudia ez betetzea	1	-
Azpiegiturak	-	1
Boto elektronikoa	1	-
Diskriminazioa, irakasle-ikertzaileekiko	1	-
Errektoregoaren portaera	2	-
Erretiroa	1	-
Gatazkak lankideekin	1	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	2
Jazarpen portaerak	-	1
Lan baldintzak	-	2
Mugikortasuna	1	-
Nagusiaren portaera	-	2
Plazak/lekualdatze lehiaketak	1	3
Saileko zuzendariaren portaera	-	1
Bestelakoak	-	1
Guztira	9	14
Erantzunik eza	1	2

Amaitzeko, "Beste batzuk" kategorian (5. taula), 2014an gehien agertutako gaiak hauek izan dira: "Ikasketetarako sarbidea" eta "Plazak/ordezkapen poltsak". Biak agertzen dira nola 2013an hala 2014an, eta, horrez gain, biak agertu dira gehien bi urte hauetan.

5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2013	2014
Atzerritartasuna	1	-
Bekak	1	-
Erretiroa	1	-
Gatazka agintariekin	1	-
GAUREn arazoak	-	1
Ikasketetarako sarbidea	3	7
Ikasleen ebaluazioa	-	1
Ikasleen portaera	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	1
Jazarpen portaerak	-	2
Kontratazioa	1	-
Lan baldintzak	-	1
Matrikula	-	2
Plazak/ordezkapen poltsak	6	4
Prezio publikoak	-	1
Tituluak eta ziurtagiriak	1	-
Unibertsitatera sartzeko proba	-	3
Bestelakoak	-	2
Guztira	15	26
Erantzunik eza	1	1

Bulegoaren esku-hartzea

Bulegoan egin diren kontsulta guztiak (83, lehen esandako moduan) behar bezala erantzun dira. Horretarako, kasu askotan, hainbat agintari eta zerbitzuren lankidetzak beharrezkoa izan da, eta Aldezlearen legelariak arautegiak eta erregulazioak aztertu behar izan ditu.

Esku-hartzeko 81 eskaerei dagokienez, 6 bitartekaritza eskaerak ziren, 1, jazarpen kexa bat –lehen esan dugun moduan–, eta gainerakoak, hots, 74, askotariko kexak.

81 eskaera horien artetik, 37 kexa ez ziren onartu: 24, prozedura arrunta ez amaitzeagatik (urgenteak izan gabe); 7, gutxieneko funtsa ez izateagatik; 2, ebazpen judizialaren zain egoteagatik; 2, eskaera zehatza ez egiteagatik, eta 2, dagoeneko konponduta egoteagatik.

Onartutako eskaeren artetik, 2 bitartekaritza eskaera ezetsi egin ziren, prozesua hasteko gutxieneko baldintzak betetzen ez zirelako. Jazarpen kexa ere ezetsi egin zen. Onartutako kexei dagokienez, 13 ezetsi ziren, xehetasunez aztertu ondoren arrazoirik gabekotzat hartu zirelako, eta 3 artxibatu ziren (2, pertsonak atzera egin zuelako, eta 1, akatsa konpondu zelako).

Horrenbestez, azkenean, 83 kontsultei erantzun zitzaizkien, eta 25 kasutan esku-hartu zen (4 bitartekaritza prozesu, eta 21 kexa). Ikus 6. taula.

6. taula. Aztertutako kasuak

Eskari mota	Jasotakoak	Ez-onartuak	Ezetsiak edo artxibatuak	Artatuak
Kontsultak	83	-	-	83
Bitartekaritza	6	-	2	4
Jazarpen kexak	1	-	1	-
Beste kexa mota batzuk	74	37	16	21
Guztira	164	37	19	108

Esku-hartzea justifikatuta dagoen kasuen proportzio txikiari buruz iruzkin bat egitea merezi du. Hori baino lehen, ordea, onartutako kexen deskribapen laburra egingo dugu.

Zazpigarren taulan, kexen gaiak zehazten dira, eta zortzigarrenean, berriz, zer kolektibori edo organori dagokien esaten da. Bi tauletan, 2014ko datuekin batera 2013koak bakarrik agertzen dira, 2012an ez baitziren datu horiek jaso.

Lehenengo taulan, izartxo batez adierazitako kasuetan, izatez, Aldezleak idatzi edo errekurtsio baten erantzuna lortzeko esku hartu zuen funtsean, nahitaezko epea igaro ondoren erantzunik eman ez zelako.

Bertan ikus daitekeenez, onetsitako kexen kopururik handiena irakasleen taldean biltzen da, eta plazen eta ordezkapen poltsen arazoei eta, zehazki, ebaluazio batzordeek egindako merituen balorazio okerrari –edo, guztiz partzialari– lotuta daude.

7. taula. Onetsitako kexen aztergaiak

	2013	2014
Araudia aplikatzeko modua	2	-
Araudia ez betetzea	-	1
Baliozkotzeak eta kredituen onarpena	2 (1*)	-
Bekak	1 (1*)	-
Doktorego tesia	-	1
Ikasleen ebaluazioa	2	-
Intimitaterako eskubidea	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	1
Jendearentzako arreta	2	-
Kanpoko praktikak	-	1
Prezio publikoak	1	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1 (1*)
Ikasleak	11	5
Araudia aplikatzeko modua	1	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	1 (1*)
Gatazka lankideekin	3	-
Ikasleen ebaluazioa	1 (1*)	-
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	1
Irakaslan-banaketa	-	1
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	1
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-
Osagarri gehigarriak	2	-
Plazak/ordezkapen poltsak	2 (1*)	3 (1*)
Prestakuntzan dagoen ikertzailearen ordainsariak	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	1
Irakasle eta ikertzaileak	10	10
Araudia ez betetzea	1	-
Errektoregoaren portaera	1 (1*)	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	1
Mugikortasuna	1	-
Nagusiaren portaera	-	1
Plazak/lekualdatze lehiaketak	-	1*
AZPko langileak	3	3
Ikasketetarako sarbidea	2	2
Kontratazioa	1	-
Plazak/ordezkapen poltsak	-	1 (1*)
Beste batzuk	3	3
GUZTIRA	27	21
*Esku-hartzearen arrazoia, erantzuna eskatzea	5	5

8. taula. Onetsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2013	2014
Arkitektura GETeko zuzendaria	1	-
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	1	-
Errektoregoa	3	1
Farmazia Fakultateko Dekanotza	1	-
Gerentzia	1	-
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Dekanotza	1	-
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	3	1
Idazkaritza Nagusia	1	1
Ikasleak	1	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	1	1
Irakasle eta ikertzaileak	5	1
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	3	5
Kanpoko Praktiken zuzendaria	-	1
Master eta Doktorego Eskola	1	1
Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Dekanotza	1	1
Pertsonaleko Gerenteordetza	1	1
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	1	-
Saileko zuzendariak	-	4
Sarbidea	-	2
Zerbitziburua	-	1
Zientzia eta Teknologia Fakultateko Idazkaritza	1	-
Guztira	27	21

Esaten ari ginen moduan, esku-hartzea justifikatuzat jo zen kasuen proportzio txikiari buruz iruzkin bat egitea merezi du. Gertaera hori urtez urte errepikatzen da, eta badirudi hazten ari dela. Lehenengo urtean, 84 eskaeretatik, 40 kasutan bakarrik jo zen esku-hartzea justifikatuzat. 2013an, esku-hartzea bakarrik 30 kasutan jo zen justifikatuzat, guztira aurkeztutako 71 esku-hartze eskaeren artean. Eta aurten, 25etan, aurkeztutako 81etik.

Gure jarrera, unibertsitateko defendatzailetza bulego bati dagokion moduan, urratua izan daitekeen zeinahi eskubide defendatzearen aldekoa da, eta edozein akats zuzentzeko laguntza ematekoa. Ez diegu, inola ere, galbahe bereziki estua aplikatu nahi esku-hartze eskaerei. Haatik, izatekotan, eskaerak onestean, nahiago dugu malgutasunez jokatu, zorrotasunez baino. Beraz, gure ondorioa da eskaera asko ez liratekeela Aldezlearen bulegoan aurkeztu beharko, edo ez, behintzat, aurkezten diren unean.

2011ko abenduaren 15eko Klaustroan egindako aurkezpenean adierazi nuen bezala, Aldezlearen lana gidatu behar duen printzipioetako bat da interferentziarik ez sortzea, beste ordezkariak eta elkarrizketa bide batzuekin. Gure unibertsitateak hainbat bide arautu ditu unibertsitateko bizitzaren hainbat arlotan egon daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzeko, eta gure erakundeak esku hartu behar du soilik bide horiek agortzen direnean edo kasu berezietan.

Horrela dago jasota erakundearen Arautegian ere (15.5 art.). Aldezleak soilik salbuespen gisa (adibidez, larrialdiko gai bat denean) esku har dezake prozedura arautua agortu gabe duten gaietan. Halere, aurten bezalaxe, aurreko izapideak ez agortzeagatik onartu ez diren eskaeren kopurua oso altua izan da gainerako urteetan ere.

Kasu batzuetan, izapide zuzenenak eta errazenak ere hasi gabe zeuden. Beste batzuetan, izapideak bai, hasita zeuden, baina Aldezlearen esku-hartzeak horiek bizkortuko zituela uste zuten. Ostera, Aldezlearen bulegoan, aparteko kasuetan bakarrik jokatzen dugu horrela. Normalean, beste organo batzuetako lanean ez sartzeko ahalegina egiten dugu.

Edonola ere, badirudi izapide batzuk oso motelak direla, baita administrazioak epeak errespetatzen dituenen ere. Egoera horren aurrean, eta ekonomikoki garai zailean gaudela jakinda ere, zerbitzu batzuk indartzeko beharra azpimarratu behar dugu, unibertsitateko kideen arazoei arinago erantzun ahal izateko.

Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Zerbitzu eta pertsona gehienek prestutasunez lagundu digute, kexa edo kontsulta bati egoki erantzuteko haiengana jo dugunean.

Dena den, aipatu behar da 8 kasutan hainbat zerbitzu eta organotan erreklamazioak egin behar izan ditugula, guk egindako alegazio eskaerei edo gure azken gomendioei erantzun diezaieten (horrelakorik ia ez zen gertatu aurreko urteetan). Seguru asko, zerbitzu edo organo horietako batzuk lanez gainezka zeuden; alabaina, aipaturako kasu gehienetan, erantzuteko, aski zen Aldezlearen proposamenari buruzko erabaki bat hartzea, analisi korapilatsurik egin gabe. Edonola ere, arazo horretaz hitz egin dugu zegokionarekin eta espero dugu, beraz, aurrerantzean horrelakorik berriro ez gertatzea.

Eskerrak eman nahi dizkiet, bene-benetan, gure lanean lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegietako idazkaritzako langileak, ikastegietako dekanok eta zuzendariak, sailletako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektorego taldeko kideak, ikasleak...

Jaso dugun erantzuna

Une honetan, 2014ko espediente guztiak itxita daude. Kexak konpontzeko jo behar izan dugun pertsonen edo organoen erantzunari dagokionez, gehienetan, positiboa izan da: 21 kexetatik 15etan, eta neurri batean beste 3tan ere, pertsonak edo organoak egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egin dizkien planteamenduak eta aholkuak (ikus 9. taula).

9. taula. Kexari erantzun behar izan dion pertsona edo organoaren erantzuna

Erantzuna	2013	2014
Ona	22	15
Baiezkoa, neurri batean	2	3
Ezezkoa	3	3
Guztira	27	21

Ondorioak

Erakundea martxan jarri zen 2012. urtearekin alderatuta, 2013an asko aldatu ziren bulegora iritsitako arazo motak: kasuen kopurua nabarmen handitu zen, oro har, baina ez ziren izan lehenengo urtekoak bezain konplexuak; gainera, bereziki handitu ziren, besteak beste, ikasleen eskaerak, kontsulten kopurua kexekiko, emakumeen eskaerak, Araba eta Gipuzkoako campusekoak... Azken batean, bazirudien erakundera zetozen pertsonen profila –eta, ondorioz, bulegoaren egitekoa– normalizatzen hasia zela eta beste unibertsitate batzuetako defendatzailetzen antza hartzen ari zela. Aurreko ataletan ikusi ahal izan dugun moduan, aldaketa horiek azken urte honetan ere gertatu dira, baina maila apalagoan.

Interesgarria izango da, datozen urteei begira, aztertutako alderdi askotan hautematen hasi diren joerak finkatzen ote diren ikustea. Dena den, are interesgarriagoa izango da, zalantzarik gabe, hemen hautemandako alderdi negatiboak pixkanaka gutxitzen ari direla egiaztatzea. Txosten honetan aurkeztutako analisia horretarako lagungarria izatea espero dugu.

2.- Beste eginkizun batzuk

Aurreko urteetan bezala, 2014an, Aldezlearen lehenetasuna izan da bulegora iritsitako eskaerei ahal bezain ongi erantzutea. Halere, erakundeak beste jarduera batzuk egin ditu 2014an, jarraian labur deskribatuko ditugunak.

G9ko Defendatzaileen X. Topaketa antolatzea

Aldezle izendatu nindutenetik, unibertsitateko defendatzaileen bilera askotara joan naiz. Bilera ohikoenak eta emankorrenak, zalantzarik gabe, G9 taldeko defendatzaileekin egindakoak izan dira. Talde horrek bi bilera egiten ditu urtean, bat, Madrilen, eta bestea, taldeko unibertsitateetako baten egoitzan. Aurten, UPV/EHUtik, bilera Donostian antolatzeko eskaintza egin genuen.

Topaketa ekainaren 19an eta 20an egin zen, Carlos Santamaria Zentroan, eta G9ko defendatzaile guztiak parte hartu zuten, osasun arazoak zirela eta, etorri ezin izan zuen bat izan ezik. Taldeko kideez gainera, horrelako bileretan ohikoak diren beste pertsona batzuek ere parte hartu zuten: Murtziako Unibertsitateko defendatzailea, Coruña Unibertsitatekoa eta Deustuko Unibertsitatekoa.

Gure unibertsitateko errektoreak agurra egin ondoren, taldeak lau lan saio egin zituen, eta alde zurretik adostutako gai hauek landu ziren:

1. Wert dekretuaren aplikazioa unibertsitateetan.
2. Sail eta ikastegietako erantzukizunak eta jarduera, ez-gai indize altuak dituzten irakasgaien aurrean.
3. Zigorgabetasuna/zigorrak, irakasleen, AZPko langileen eta ikasleen portaera larrien aurrean.
4. Arazo psikologikoak tartean dituzten kasuak.

Topaketa prestatzeaz gainera, taldeko kide aktibo gisa, azkeneko txostena prestatu eta aurkeztu nuen.

Espainiako beste unibertsitate defendatzaile batzuek antolatutako topaketetan parte hartzea

Bestalde, aurten, urriaren 22-24an, “Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XVII. Topaketan” parte hartu dut, Badajozen.

Topaketa hartan, “Asignaturas con resultados anómalos” izeneko txostena aurkeztu nuen eztabaidarako, Coruñaeko Unibertsitateko defendatzaile Enrique Martínezekin eta Estremadurako Unibertsitateko irakasle Manuel Monterorekin batera.

Administrazioaren aurrean eskubideak defendatzeko beste organo batzuen topaketetan parte hartzea

Amaitzeko, Bilboko Epaitegi Ekonomiko-Administratiboko presidente Julia Madrazok eta UPV/EHUren Lan Harremanetako UEko zuzendari Ángel Elíasek gonbidatuta, Udal Epaitegi Ekonomiko-Administratiboen IX. Topaketan parte hartu zuen. Bilbon egin zen, 2014 ekainaren 13an eta 14an, eta batera antolatu zuten UPV/EHUK eta Bilboko Udalak.

Topaketa hartan, zeinean Iñigo Lamarca Arartekoak ere parte hartu zuen, txosten bat aurkeztu nuen “El valor de las instituciones de defensa de derechos ante la Administración” izenburupean.

3.- Txosten ekonomikoa

2014ko aurrekontua 15.000 eurokoa izan zen. Hamargarren taulan, gastuak eta kontuen egoera biltzen dira, 2014ko abenduaren 31n –ekitaldi ekonomikoa ixteko data–.

10. taula. 2014ko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	15.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	2.873,49€
G9ko unibertsitate defendatzaileen topaketa antolatzea	1.124,43€
CEDUko eta ENHOEko bazkide kuota	275,00 €
Ikastaroak	5.767,16 €
Bidaiak eta dietak	2.026,76 €
Beste gastu batzuk	173,91 €
Gastuak guztira	12.240,75 €
Saldoa	2.759,25 €

4.- Gogoetak, hiru urteren buruan

Orain arte, 2014an Aldezle modura egin dudan lanaren oinarrizko alderdien nondik norakoak azaldu ditut. Badira hiru urte, ordea, gure unibertsitateak pertsona bat hautatu zuela erakunde honen ardura hartzeko, eta denbora horretan izandako esperientziari buruzko gogoetak egiteko une egokia dirudi.

Aldezle erakundearen lanak unibertsitateko makineriaren funtzionamendua bertatik bertara ikusteko eta aztertzeko aukera ematen du, behintzat zerbitzuen funtzionamenduari, eskubideen errespetuari eta giza harremanen kalitateari dagokienez. Horren harira, Aldezle erakundea behatoki pribilegiatu bat da. Jakina, behatzeko gune nolabait partziala ere bada; izan ere, bulegora, gehienbat, arazoak, gatazkak eta akatsak iristen dira; hau da, indarguneak baino gehiago unibertsitateko kideen ahulguneak. Halere, gehienbat, arazoetan arreta jartzeak ez du esan nahi haren ikuspegiak balio gutxiagorik duenik. Akatsak zer alderditan gertatu diren eta horiek nola konpondu beharko lirakekeen aztertzea ezinbesteko eginbeharra da bere jarduera etengabeko hobekuntzara bideratu nahi duen zeinahi komunitaterentzat. Jarraian, beraz, nire azken urte hautetako esperientzian egiaztatu ahal izan ditudan hainbat ahulgune aipatuko ditut.

Lehenik eta behin aipatu behar da gure bulegora iristen diren ahulguneak eta arazoak ez direla batere originalak. Une honetan –ez, ordea, lehen urtean– gure inguruko defendatzailetza gehienetan izaten direnen parekoak dira, gutxi-asko; batzuk aipatzearren, garrantzi berezikoak aipatuko ditut: modu egokian ematen ez diren zerbitzuak; erantzuten ez diren erreklamazioak edo modu zabarrean eta argudio gutxirekin erantzuten direnak; jarduera endogamikoak; edozer egin dezaketela uste duten pertsonak, agintaritza akademikoak eta haien kideak errespetatzen ez dituztenak; erantzunik eza, hainbat jardueraren aurrean; konpontzen ez diren akatsak... Haatik, horiek guztiak gure inguruko arazoan antzekoak izan arren, ez ditugu zertan onartu unibertsitateko funtzionamenduaren berezko elementu intritsekotzat.

Egia esan, arazo horiek, neurri handi batean, segidan egindako unibertsitate legeek eta arauak baldintzatutako Espainiako unibertsitateen eraketari lotuta daude, eta batzuetan haien sustraiak oso errotuta dauden kultura balio eta ohituretan bilatu behar dira. Ez dira, ordea, inondik ere, unibertsitatearen berezko osagaiak. Are gehiago, horietako asko erraz konpon daitezke. Kostu handirik ere ez dute. Batez ere, balioen eta jarreraren kontua da: gauzak aldatu nahi izatea eta horretarako konpromisoa hartzea. Unibertsitate erakundeetan, nork bere lanpostuan egindako keinu zein aldaketa txikiak funtzionamendu aldaketa sakona ekar dezakete, hemen aztergai ditugun alderdietan.

Jakin badakit unibertsitate erakundea konplexua dela eta ez dela batere erraza hura aldatzea. Alabaina, haizeak, gure inguruan, aldekoak ditugu. Une honetan, erabatekoa da bizitza publikoa eraberritzearen eta biziberritzearen aldeko gizarte aldarria. Frantzisko Aita Santuak bezalako pertsona batek, erradikala izateko susmopean inondik ez dagoenak, moduen eta jarreraren aldaketa sakona aldarrikatzeko ausardia izan du, gurea baino askoz ere tradizionalagoa, konplexuagoa eta aldagaitzagoa den erakunde batean.

Urte hauetan guztietan, nire gidaritzapean dagoen bulegoan, askotariko pertsonekin harremanetan egoteko parada izan dugu; izan ere, unibertsitatea mundu bat da, baita pertsonen dagokienez ere. Hala, unibertsitateko kideentzat jarrera erabat “toxikoak” dituzten pertsonak ezagutu ditut (autoritarioak, gatazkatsuak, manipulatzaileak, lotsagabeak...), baina baita ustez zuzena den horren alde borrokatzen diren pertsonak ere, erabat konprometituak eta eskuzabalak, zuhurrak lanean eta sentikorrek giza faktorearekiko, atseginak tratuan...

Askotan pentsatu izan dugu, Aldezlea bera soberan legokeela guztiok azken horiek bezala jokatu bagenu. Bada, egoera horretara inoiz iritsiko ez bagara ere, horrek izan beharko luke gure iparra: Aldezlearen beharra ez izaten saiatzeari, guztiok batera lana eginez, egunez egun, funtzionamendu bikain bat lortzeko hala zerbitzuan nola tratuan; hots, funtzionamendu eraginkorra, zuzena, adeitsua, irekia, gardena, ausarta...

Ari gara aurrera egiten norabide horretan? Gure ustez, hainbat urrats egin dira norabide egokian, baina, nire erakundearen ikuspegitik, batzuetan, are urrats handiagoak egin beharko lirateke.

Gure betiko kezka iturria izan den gai bati dagokionez, hots, unibertsitateko kideek egindako idatzi eta erreklamazioei zerbitzuek eta agintariak ez erantzuteaz, gaur egun, Txosten honen lehen atalean azaldu den moduan, organo batzuek oraindik ez dute erantzuten edo modu desegokian erantzuten dute (planteatutako gaiak ez diete erantzun zehatzik ematen ezta erantzun argudiatu ere). Neurri batean, horrelakoak gerta daitezke, zenbait kasutan, zerbitzuak langile nahikorik ez duelako ematen zaizkion eginbehar guztiei aurre egiteko. Edonola ere, nire ustez, arazo garrantzitsu baten aurrean gaude, eta, luze gabe, hura maila guztietan konpontzeko ahalegina egin beharko genuke. Unibertsitateko kide guztiek entzunak izateko eta erantzun egokia jasotzeko eskubidea dute, unibertsitateko bizitzaren uneren batean administrazioarengana jotzen dutenean. Betebehar hori gutxienezkoa eta saihestezina da XXI. mendeko administrazio batean.

Aldezle gisa kezkatu nauen beste alderdi bati dagokionez, hots, unibertsitateko agintari batzuek erabakiak hartzeko unean izandako jarrera ez oso erabakiorraz, lehen aipatu dudak bezala, jakin badakit gure bulegoaren ikuspegitik asko ikusten dela, baina, ezin dela, noski, unibertsitatean gertatzen den guztia ikusi; eta, segurua asko, unibertsitateko agintariak kanpotik oharkabean pasatzen diren erabaki asko hartzen dituzte, horrek kostu pertsonal handiak ekar diezaiaketen arren. Nolanahi ere, erakunde honen lehenengo urtean, agerian geratu zen iraganetik zetozen arazo askoren aurrean jarrera desegokia zegoela, horien gaineko erabakiak hartzeari lotua. Gaur egun esan dezakegu ezen, gure bulegoan kezka-iturri ziren hainbat gairi dagokionez, zenbait urrats garrantzitsu eman direla, txikiak izan arren.

Horrek ez du esan nahi, ordea, arazoak behin betiko konpondu direnik. Izan ere, urte hauetako esperientziak beste gauza bat erakutsi dit: defendatzailetzara iristen diren arazo gehienetan, bereziki arazo pertsonalak tartean direnean, nekez kontrola daitezkeen giza faktore bat dago. Gure esku, hots, agintari akademikoak eta Aldezlearen esku, bakar-bakarrik dago arazoak konpontzen lagun dezaketen neurriak martxan jartzea. Arazoen protagonistek azkenean nola jokatu duten erabakitzeak ahalmenik ez dugu.

Azkenik, nire iritziz unibertsitateko bizitzaren arazo askotan giltzarria den beste gai bati dagokionez, hots, jarduera desegokiaren aurrean erantzukizunak eskatzeaz, urrats batzuk egin dira, baina, Aldezlearen bulegoaren ikuspegitik, urrats horiek handiagoak izan beharko lukete.

Garrantzitsuena, orain, aurrera jarraitzea da. Bestalde, gure irudipena da, astiro-astiro, administrazioaren zati handi bat, osoa ez bada ere, gero eta gehiago jabetzen ari dela Aldezle erakundearen emandako eginkizunaz, eta haren lana babesten duela. Erakunde hau, zenbaitetan deserosoa izan daitezkeen eta, jakina, beste edozeinek bezala, akatsak egin ditzakeen arren, epe luzera UPV/EHU osoaren onura besterik ezin du ekarri. Gure aldetik, behintzat, onura hori ahal bezain handia izateko egiten dugu lana.

Txosten hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet gure lana ongi egiten lagundu diguten pertsona guztiei. Era berean, aldez aurretik eskertzen ditut gure lana hobetzeko iradokizun guztiak.

Mila esker zure arretagatik.

ERANSKINA: Bideratutako eskariak

Kodea			
Taldea	Eskari mota		
IK: Ikasleak	KE: Kexa		
Ir./Ik.: Irakasle eta ikertzaileak	KO: Kontsulta		
AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza		
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	J: Jazarpena		

Kop.	Taldea	Eskari mota	Gaia
235	IK	KO	Tratu desegokia, irakasle batengandik.
236	Ir./Ik.	KO	Doktore aurreko kontratuaren soldata gordinaren murrizketa, aurreko urtearekiko.
237	Ir./Ik.	KO	Genero bazterkeria, irakasle-ikertzaileak egiaztatzeko prozesuan.
238	Ir./Ik.	KO	Saileko irakasle baten jarduera bidegabeak, beste irakasle gazteago batekin.
239	AZP	KE	Nagusi baten tratu desegokia, zerbitzuan funtzionamendu arazoak sortuz.
240	Ir./Ik.	KE	Arazoak Saileko lankide batekin.
241	Ir./Ik.	KO	Irakasleen Hobekuntzarako Planaren Erabakiari buruzko informaziorik eza.
242	IK	KE	Baliozkotzeri buruzko errekurtsua erantzun gabe, irakasgaiaren hasieraren bezperan.
243	AZP	KE	Lan baldintza gogorrak.
244	Ir./Ik.	KE	Ikasle taldearen portaera onartezina (grabatzea eta sare sozialetan ematea, etab.).
245	IK	KO	Irakasle batek azterketa bat galtzea.
246	IK	KO	Azterketa baten nota erreklamatzeko modua.
247	Ir./Ik.	KE	Sailak Errektoregoak aitortutako irakaskuntza eskubidea ukatzea.
248	IK	KO	Epaimahai Bereziaren erabakiari errekurtsua jartzeko modua.

249	IK	KE	Ikasleen Kontseiluak irakasle bati buruz jarritako kexei ez erantzutea, eta Graduako tituluaren eskaera, lizentzian graduari dagozkion baino kreditu gehiago egiteagatik.
250	Beste batzuk	J	Agintari akademikoen jazarpena.
251	Beste batzuk	KE	Bere gradua ez da agertzen irakaskuntza ertainetara sartzeko aukera ematen dutenen artean.
252	IK	KE	Ikastegi bateko hainbat irakaslek, ustez, egindako bazterkeria.
253	IK	KO	Irakasle batek, ustez, egindako genero indarkeriako ekintza bat.
254	Ir./Ik	KO	Saileko hainbat lankideren portaera.
255	AZP	KE	Ez dizkiote dokumentuak ematen, baina, haren ustez, horiek edukitzeko eskubidea du.
256	Ir./Ik.	KE	Saileko eta ikastegiko zuzendariek ez dizkiete erantzun ikasleen ebaluazioan izandako gatazkari buruzko idatziei.
257	IK	KO	Bideo curriculum bat Youtuben jartzeko eska daiteke?
258	Ir./Ik.	KO	Nola jokatu beste hautagai batek administrazioarekiko auzian norberaren plazari jarritako errekurtsoren aurrean.
259	IK	KO	Gradutik lizentziara itzultzea ez onartzea.
260	Ir./Ik.	KE	Plaza baten horniduran giltzarriak diren hainbat gairi buruzko idatzi askori erantzunik ez ematea.
261	Ir./Ik.	KO	Arazoak izateko beldurra, Saileko irakasle bat lanean hasiko delako berriro.
262	AZP	KE	Txanda aldaketa onartzen ez dela jakinaraztea, idatzirik gabe eta argudiorik gabe.
263	Beste batzuk	KO	Ez diote uzten matrikulatzen Master baten irakasgai batean, non eskolak ematen hasi diren.
264	AZP	KE	Lekualdatze lehiaketa baloratzeko batzordeak ez dio erantzun egindako eskaerari.
265	Beste batzuk	KE	Ikasleen jokabide desegokiak irakasgai bat gainditzeko.
266	Beste batzuk	KE	Irakaskuntzaren grabaketa okerra, aurreko urteetan.
267	IK	KO	Kargua uzten duten gobernuko ordezkariak Ikasleen Kontseiluan parte hartzeko aukerari buruzko galdera.
268	AZP	KO	Administrariaren eskumena, beste pertsona baten ordezkari arratsaldeko txanda egitea eskatzeko.

269	IK	KO	Irakasgai baten konpentsazioaren bidez diploma amaitzeko aukera, Gradura pasatu gabe.
270	IK	KO	Gaizki ulertze bat dela eta, GRALa ikasturte honetako deialdiren batean aurkezteko aukera ez izatea.
271	Ir./Ik.	KO	Ikertzaile batek etxetik egin nahi du lana taldeko beste pertsona batekin arazoak dituelako. Zer egin daiteke?
272	IK	KO	Liburutegian manifestariak daudenez, ikasteko lekuari buruzko galdera.
273	Ir./Ik.	KO	Sail baten arautegia ez betetzea.
274	Ir./Ik.	KO	Zer egin daiteke UPV/EHUn webgune bat lortzeko?
275	Ir./Ik.	KE	Laguntza kobratzeko biltzarretako fakturak eskatzeko modua, horietako askok fakturak ez badituzte.
276	Ir./Ik.	KE	Arazoak lan utzialdi batetik itzultzea.
277	IK	KO	Praktiken gaia arautzeko beharra, etenaldi akademikoak gertatzen direnean.
278	Ir./Ik.	KO	Arazoak tesiaren zuzendaritzarekin, Deustun.
279	Ir./Ik.	KE	Urtebete igarota, artikulua zientifiko baten egiletza arazoei buruz Errektoregura bidalitako idatzi bati ez zaio erantzun.
280	AZP	KE	Lekualdatze lehiaketan, hizkuntza tituluen aitortza desberdina egitea AZPko langileei, irakasle-ikertzaile eta ikasleekiko.
281	IK	KO	Graduko ikasketak egiten jarraitzeko aukerarik ez izatea, beka bat ukatzeagatik.
282	IK	KE	Greba egin duten ikasleak gela batean sartu dira, eskola orduan.
283	Ir./Ik.	KO	Ekainean kontratua ordubetez luzatzeko aukera izatea, azterketak egiteko eta aktak sinatzeko.
284	Beste batzuk	KO	Unibertsitatean liburuxkak banatzeko eta muineko gaixotasunak dituzten haurren arazoari buruz kontzientziatzeko baimena eskatzea.
285	Ir./Ik.	KO	Ikerketa taldeko kide bat bere datuekin geratu da.
286	IK	KO	Jarduteko modua, ikasketa planean aldaketaren bat proposatuz gero.
287	Ir./Ik.	B	Saileko zuzendaritzari etengabe jazartzen zaizkion pertsonak.

288	IK	KO	Irakasgai batean aurkezteko aukera, konpentsatzeko eskaeraren uko egiteari errekurtsua jarri zaionean.
289	IK	KE	Berandu erantzutea eta ikasleekin informazio bilera egiteko eskaerari uko egitea.
290	AZP	KO	Saileko zuzendariak errespetu gabe tratatzea.
291	Beste batzuk	KO	Espedientea lekualdatzeko aukera.
292	Beste batzuk	KE	Gehiegizko lan karga, UPV/EHUk kontratatuko enpresa batean.
293	IK	KO	Amaierako ebaluazio bakarra egiteko aukera izatea.
294	Ir./Ik.	KE	Ikastegiko zuzendariak begirunerik gabe tratatzea.
295	Ir./Ik.	KE	Plazei buruzko epai irmoa ez betearaztea, ia hiru hilabete igaro ondoren.
296	IK	KE	Erasmuseko egonaldia egiteko aukera ez izatea, Ikastegiak egindako akatsengatik.
297	IK	KE	Irakasle titularra ikasturteko azken eskoletara ez joatea, ordezkapena amaitu ondoren.
298	Beste batzuk	KE	Irakasle-ikertzaileak ordezkatzeko poltsen kudeaketarekin ados ez egotea.
299	IK	KO	Kanpo praktikak egiteko aukera ez izatea, bere ikasturterako ikasketa planean aurreikusita ez egoteagatik.
300	Ir./Ik.	B	Gatazkak etengabe, saileko irakasleekin.
301	Beste batzuk	KE	Euskararen trataera selektibitateko azterketan. Gaztelania baino maila txikiagoa eman zaio, atzerriko hizkuntza baten parekoa.
302	Beste batzuk	KE	Azterketan bertan gaizki egindako selektibitateko matrikula aldatzeko aukera ez izatea.
303	AZP	KE	Lekualdatze lehiaketaren erabakia beharrik gabe luzatzea.
304	Ir./Ik.	KE	Kontratuan agertzen den soldata jaistea, azalpenik eman gabe.
305	Ir./Ik.	KO	Entregatu zuen aparatu bat erreklamatzeko.
306	IK	KO	Arazoak, irakasle bat azterketa batean atzeratzearen ondoren.
307	IK	KO	Graduko espedientea itxi ondoren, borondatezko praktikak egiteko aukera.
308	IK	KE	Gradu Amaierako Lanari buruzko araurik ez egotea.
309	Ir./Ik.	B	Unibertsitatera itzultzea.

310	IK	KE	Irakaskuntza gabeko irakasgai batean egin dioten ebaluazioarekin ados ez egotea.
311	IK	KO	Osakidetzan lana egiteko aukera ez izatea, Europar Batasuneko herritarra ez izateagatik.
312	Beste batzuk	KE	Masterraren sarbideari buruzko informazio okerra.
313	Beste batzuk	KE	Unibertsitatera sartzeko probaren aparteko deialdiari buruzko informazio okerra.
314	Ir./Ik.	KO	Batzordeak argudio ahulekin aldatutako bere irakasgaiaren notaren errekurtsioa nori jarri behar zaion.
315	IK	KE	Hainbat kexa: ebaluazioen aurka, tratu desegokia, eta pertsona ezindu gisa dituen eskubideak ez errespetatzea.
316	Ir. /Ik.	KE	Irakasleen Batzordeak irakasgai bat ingelesez emateko eskaera ukatu dio, haren ustez zuzenak ez diren argudioak emanez.
317	IK	KO	Ebaluazio irizpidearen aldaketa eskolan aipatu da, baina ez da argitaratu. Zer egin daiteke?
318	Ir./Ik.	B	Sailez aldatzeko bitartekaritza, behin eta berriro ematen diren arazoak direla eta.
319	IK	KO	Arazoak, iraungitzeaz den planaren irakasgaiaren ebaluazio eta irakaskuntzarekin.
320	Ir./Ik.	KE	Konparaziozko bidegabekeria, haren antzeko baldintzak dituzten bekadunen irakaskuntzarekiko.
321	Ir./Ik.	KE	Errektoreorde baten tratu autoritarioa.
322	IK	KE	Irizpide desegokiak aplikatzea, iraungitzeaz den irakasgai baten nota kalkulatzeko, azken deialdian.
323	Ir./Ik.	KO	Beste campus batean irakaslanaren banaketa erabakitzekeko irizpideak.
324	Beste batzuk	KE	Sarbiderako Zuzendaritzak selektibitateko matrikulan aldaketa bat egiteko aukerari buruz emandako ezezko erantzuna.
325	IK	KO	Arazoak kide anitzeko organoetan.
326	Beste batzuk	KE	Informazio okerra titulu baten sarbideari buruz.
327	IK	KO	Zer egin okerreko ikasturtean matrikulatutako irakasgaiarekin eta ondorioak Gradura igaro behar izatean.
328	Beste batzuk	KO	Nola erreklamatu matrikularen kobrantza okerra beste unibertsitate batean.

329	IK	KO	Eibarren Ingeniaritza Elektronikoko Graduarekin jarraitzeko ezintasuna, iraungitze bidean egoteagatik.
330	Ir./Ik.	KO	Nola jokatu Sailaren lanean eragina duen irakasleen arteko gatazkan.
331	IK	KO	Master Amaierako Lana gainditzeko dauden deialdiak.
332	IK	KE	Desadostasuna tasak ordaintzeko betebeharrarekin, espedientea lekuz aldatzeagatik UPV/EHUko ikastegiaren artean.
333	Ir./Ik.	KO	Desadostasuna Sailak grabatutako irakaslanaren banaketarekin.
334	Beste batzuk	KE	Desadostasuna ikastegiak bere tituluaren sarrera nota kalkulatzeko erabilitako irizpideekin.
335	IK	KE	Desadostasuna irakasgai baten irakaskuntzarekin: edukiak, metodologia eta ebaluazio sistema.
336	IK	KE	Praktiketan matrikulatzeko ezintasuna.
337	Ir./Ik.	KO	Graduko titulua lortzeko aukera irakasgai bat gainditu gabe.
338	IK	KO	GRALa egiteko aukera beste unibertsitate batean SICUE beka eduki bitartean.
339	Beste batzuk	KO	Osasun arrazoiak medio lekualdaketa epez kanpo eskatzeko aukera.
340	AZP	KE	Desadostasuna lan poltsen balorazioarekin.
341	Ir./Ik.	B	Irakaskuntza esleitzeko arazoak, irakasleen arteko gatazkagatik.
342	Ir./Ik.	KO	Ikasleen portaera eskoletan.
343	IK	KO	Zer egin okerreko ikasturtean matrikulatutako irakasgaiarekin eta ondorioak Gradura igaro behar izatean.
344	IK	KO	Agiri arazoak dituen ikasle atzerritar batentzako laguntzak.
345	IK	KO	Zer egin Minorrean euskara talderik ez dagoenean.
346	Ir./Ik.	KE	Saileko zuzendariak emandako tratu txarra.
347	IK	KE	Hainbat irakasgaitan matrikularik ez onartzea numerus claususagatik.
348	AZP	KE	Gobernu Kontseiluko aktak sindikatuei ez bidaltzea.
349	Ir./Ik.	KE	Plazak ebaluatzeko batzordeak behin eta berriro gaizki jotzea.

350	Ir./Ik.	KO	Epaimahaietako kideak hautatzeko arautegia jardueretarako edo lanbideetarako tituluak lortzeko probetan.
351	IK	KE	Matrikularik ezin egitea idazkaritzaren ustezko akats batengatik.
352	Ir./Ik.	KE	Erantzunik ez tesi zuzendaritza aldaketari.
353	Beste batzuk	KE	Irakaskuntza esleipena eta ordutegiak aldatzea, lortutako plazari uko egin diezaion.
354	IK	KE	Masterrean ezin matrikulatzea, kalifikazio bat falta delako.
355	AZP	KE	Gehiegizko kontrola pairatzea.
356	IK	KE	Eskolak eta ebaluazioak galtzea, matrikula data ikasturtea hasi ondorengo izateagatik.
357	Ir./Ik.	KE	Irakasle eta ikertzaileen poltsetan, gaizki aplikatzea merezimenduen balorazioari buruzko arautegia.
358	Ir./Ik.	KO	Batzar batean irakasle batek Saileko zuzendaria iraintzea.
359	Ir./Ik.	B	Errepikatzen diren arazoak Sail batean.
360	IK	KO	Lana eta familia uztartzeko arazoak ikasketak egiteko beste campus bateko irakasgunean.
361	IK	KO	Aholkua ireki zaion espediente baten aurrean.
362	IK	KE	Praktikak egin dituen enpresak ez ordaintzea.
363	IK	KO	Osasun arrazoiengatik eskola eta azterketako huts egiteak arrazoitzeari buruzko aholkularitza, beka eskatzeko orduan.
364	IK	KE	Irakasgai matrikula euskarazko taldean ez onartzea numerus claususagatik.
365	IK	KO	Irakasgai baten konpentsazioa ez onartzea.
366	Beste batzuk	KE	Ezgaitasuna duen pertsona batek menpeko plaza ezin lortzea hizkuntz gaitasuna ez izateagatik.
367	IK	KE	Pertsona transexual bati matrikulan izen aldaketa ez aitortzea.
368	Ir./Ik.	KO	Nola jasan bere bidezko erreklamazioei Saileko Zuzendaritzak emandako erantzuna.
369	IK	KE	Masterreko Tituluari buruzko hainbat erreklamaziori ez erantzutea.
370	IK	KO	Desadostasuna ERASMUS irakasgaien baliozkotzeetan lortutako kalifikazioekin.

371	Ir./Ik.	KO	Zer egin zuzendari modura irakasle baten eskaerarekin, haren ikasle bati bere aurkako zurrumurruek iritsi zaizkionean.
372	Ir./Ik.	KO	Jazarpen kexa bat aurkezteko aukera aztertzea.
373	IK	KE	Bajan dagoen irakaslea ez ordeztea.
374	Ir./Ik.	KE	Plaza baten ebaluazioari buruzko errekurtsioari ez erantzutea.
375	IK	KE	Tesi baten defentsa ez onartzea, Kontseiluan tutorerik ez egoteagatik.
376	IK	KO	Errektoreordearekin bilera egiteko baldintzak.
377	Ir./Ik.	KE	Arauzko epea igarota, plaza baten hornidurari buruzko errekurtsioari ez erantzutea.
378	IK	KO	Nola aurkeztu zentzura mozioa ikastegi zuzendari baten aurka.
379	AZP	KO	Bere lanari buruzko funsgabeko eta etengabeko kritikak.
380	AZP	KO	Arabako campusean autobus geltoki eskaera kudeatzeko modua.
381	Ir./Ik.	KO	Ikastegiko zuzendaritzaren aurka protesta egiteko modu desegokiak.
382	IK	KO	Nola salatu irakasle baten portaera.
383	Beste batzuk	KO	Osasun arazoak kontuan ez hartzea UPV/EHUra lekualdatzean.
384	IK	KO	Ikaskideengandik bazterketa pairatzeak eragindako arazoak.
385	IK	KO	Arazoak kide anitzeko organoetan.
386	Ir./Ik.	KE	Antzintasuna eskatzea A eta B osagarriak lortzeko.
387	IK	KE	Lana ez onartzea absentzia justifikatua duen errendimendu handiko kirolariari.
388	Beste batzuk	KE	Aitortza txikia Karrera Amaierako Proiektuaren kredituetan.
389	IK	KO	Masterra euskaraz egiteko aukera.
390	Ir./Ik.	KE	Plaza baten ebaluazioari buruzko errekurtsioari ez erantzutea.
391	Ir./Ik.	KE	Irakaskuntza esleitzeari buruzko baiepen erabakiak eragindako ondorio pertsonal negatiboak.
392	IK	KO	Zer egin SICUE beka eskatzeko, baldintza bati buruzko informazio okerra jaso denean eta baldintza hori bete ez denean.

393	Beste batzuk	KO	Nola erreklamatu espediente onenari buruzko erabakia.
394	Beste batzuk	KO	Beldurra epaimahai baten jokabide lerratuari.
395	Beste batzuk	KO	Zer egin ados ez egotean lizentziatura bateko Irakaskuntzaren Kudeaketarekin.
396	IK	KO	Dekanotzari irakaskuntza arazoei buruz aurkeztutako idatziari ez erantzutea.
397	Ir./Ik.	KO	Bulegoa uztea eskatu diote, Batzarrean horretarako ezarri diren baldintzak betetzen ez diren arren.
398	Ir./Ik.	KE	Lanak kopiatzen dituzten ikasleak.
